

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Mugako eldarnioak



Iratxe Retolaza



Kristo irakiarra

HASSAN BLASIM

Itzultzailea: Ana I. Morales
Pasazaite argitaletxea, 2017.

Ahots narratibo garaikide bat ezagutzea eman digu Ana I. Morales itzultzaileak, Pasazaite argitaletxearekin elkarlanean: Hassan Blasimek (Bagdad, 1973) *Kristo irakiarra* (*The Iraqi Christ*, 2013) bilduma sarituan gorpuzturiko ahots literarioa. Narrazio-adarrez eta ahots-sarek osaturiko kutxa da bilduma hau, narrazio bakoitzaren barruan istorioak adarkatu egiten direlako, labirinto-egituraren itxura hartzeraino. Nahiz eta esplizituki egin ez, *Kristo irakiarra*-n iradokitzen da izan badela narrazio guztiak biltzen dituen marko narratibo bat; hortaz, *Mila gau eta bat gehiago* bildumaren arkitektura dakar gogora.

Lehen narrazioan, *Ahuntzen kanta*-n, Memoria Irratiaren istorioa kontatzen zaigu: diktadorea jausi, eta iraganaz aritzeko helburuarekin sortu zen irratia. *Beren istorioak*, *beren ahotsean* izeneko irratsaioa abian jarri zen, lehiaketarako deia eginez, nork istoriorik onena kontatu. Hurrengo hamabi narrazioek lehiaketa berezi hori ardatz dutela interpreta dezakegu; iraganeko istorioak gogora ekartzen dira, ahozko jariora da nagusi...

Gerra-genealogia baten oihartzunez josita daude narrazioak: Kuwaiten kontrako gerra, Saddam Huseinen diktaduraren amaiera, AEBetako ejertzitoaren esku-hartzea. Jakina, horiek eragindako zauriak dira agertokia: erbesteratzeak, leherketak, jazarpenak, bortxaketak, mutilazioak, urkatzeak... Indarkeria-giro horretan irudimena eta istorioak dira helduleku (Xerezaderen antzera, protagonistek istorioak dituzte bizirauteko amarru); oihartzun historiko horiek eragiten duten espantu, horrore eta izua gurutzatu egiten dira misterioarekin, zoriarekin, fan-

tasiarekin, haluzinazioekin, groteskoarekin, jolasarekin, absurdoarekin...

Mugako eremuetara garamatza une oro Hassan Blasimek, kausalitaterik gabeko mundu bat irudikatzeko: ametsaren eta errealitatearen artean, irudimenaren eta erlijioaren artean, heriotzaren eta bizitzaren artean... kokatzen ditu pertsonaiak. Mugako eremu horiek gizatasunaren mugez jarduteko bide dira, baina baita muga-talkak irudikatzeko bide ere. Batzuetan muga geopolitiko-historikoak dira (esaterako, erre-fuxiatu-kanpamenduetara garamatza, edo Finlandiara migratu behar izan duen protagonista aurkezten digu); eta beste batzuetan, muga kultural zein literarioez dihardu (besteak beste, metaliteratura erabiltzen du Ekialde eta Mendebaldearen arteko joan-etorriko harremanez jarduteko).

Osagai horiek batasuna ematen diote bildumari, baina, aldi berean, narrazioz narrazio arkitektura propioa sortu du idazleak, eta narrazio bakoitzak labirintoan areago arakatzera gonbidatzen gaitu. ■

Hassan Blasim idazle irakiarra (Bagdad, 1973).

